

JON ARRETXE

EZ ERRAN
DEUS



erein

EZ ERRAN DEUS

22

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko azaroan

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-356-5

L. G.: SS-1.263/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

JON ARRETXE

**EZ ERRAN
DEUS**

erein

I



Kilkerrek kantatzeari utzi diote gizonaren urrats hurbilak sumatzean, baina gaueko isiltasunak gutxi iraudu, heldu berriak motozerra martxan jarri arte bakarrik. Eguraldi ona egon arren, burua estaltzen dion txano zabaleko kapusai nasaia dauka jantzita. Borda aldera begiratu du, ez da argirik ageri, badirudi ez dagoela inor. Astoa, ordea, bizkortu egin da eta, belarriak tente, nahasturik legez so egin dio bisitariari. Hau hurreratu zaionean, animalia arrantzaka hasteko izan da, baina ez du horretarako betarik izan, gizonak ebaki bizkor batez moztu baitio lepoa. Burua jausi da lehenik lurrera, eta lipar baten ondoren gorputza, belardia bat-batean gorritu duen odol-zorrotada oparo batez lagunduta. Gizonak motozerra gelditu eta ingurumaria aztertu du,

bere horretan dirau denak, ilun, isil, herriko etxerik hurbilenak urrun daude eta ez dago inolako arriskurik. Hiltzaileak astoaren buruari belarri batetik heldu eta arrastaka eraman du pistaraino, belar hezea lisatuz. Bere 4x4aren atzeko atea ireki, trofeoa plastiko baten gainera bota eta gero zain gelditu da segundo batzuetan, kantuari ekin ez ekin dauden kilker herabeen lehenengo hotsei adi. Ez da gehiegi luzatu horrela, berehala autoan sartu, motorra piztu eta, Muse-ren *Origin of Symmetry* diskoa topera ipinita, azeleragailua barruraino zapaldu du.

* * *

Isaaki ez dio batere graziarik egiten inork siesta izorratzeak eta gaur erditik eten diote, amets umeletan ari zela, gainera. Sakelako telefonoa hots barik eduki arren, etxeraino etorri zaizkio eta hor ari dira txirrina jo eta jo, erre beharrean. Marmarka bizkortu du bere gorputz mardul koipetsua, eta atea irekitzera joan da:

–Zu zara? –bota du, atsekabez, Tomas behizain erraldoiaren betoker-soarekin topo egitean.

–Neu naiz, bai, ez zenuen nire bisita espero, ala?
–erantzun dio bisitariak ahots baxu ozenaz.

–Zergatik espero behar zintudan?

–Jakin duzu astoa akabatu didatela, ezta?

–Bai, eta?

–Eta? Ez duzu deus egiteko asmorik?

–Zer egin beharko nuke, ba, nik?

–Zeuri dagokizu nork hil duen asmatzea!

–Niri? Ostiak!

–Herriko aguazila zara.

–Eta zer? Ea enteratzen zareten, behingoz, ez na-goela behartuta herrian sortzen diren arazo guzti-guztiak konpontzen eta ezin zaretela nire etxera etorri edozein egunetan eta edozein orenetan zuen bizitza kontatzera. Nik bertzelako ardura inportanteagoak ditut, ulertzen?

Behizainak segundo pare bateko zalantza izan du, nola erreakzionatuko, eta tartetxo hori nahikoa izan zaio Isaaki atea danbada batez ixteko haren muturren aurrean. Tomasek gogoia izan du ostikoka hondatzeko atea, bere indar itzelaz egin zezakeen, ziurrenik, baina amorrua irentsi eta, txapela buruan finkatu ondoren, alde egin du handik.

* * *

Isaak, behizain petralak behingoz ospa egin duela ziuertututakoan, zapatak jantzi, bere bizikleta sufritua hartu eta kalera irten da. Tomasen bordarantz abiatu da, hain zuzen, ez dago urrunegi, baina izerditan hasi da berehala,

lehenengo aldapatxoari ekin orduko. Medikua aldiro esaten diona gogoratu zaio: ez lukeela hainbeste jan beharko, ez lukeela hainbeste edan beharko, betiko kontua, kaka!

Helmugara puzka ailegatu denean ohartu da as-toaren gorpua ez dagoela jada agerian, eta hobe horrela, bestela putrez eta mamorroz gainezka egongo zen parajea. Belardiko odol-arrastoei erreparatu die, pistako gurpil-markei ere bai... Hilketa-gunean gaizkilearen arrasto handiegirik ez dela geratu egiaztatu ondoren, harri baten gainean jesarri eta ingurumaria aztertu du bere aurpegi biribileko bizar erdi hazia igurtziz. Orbeko belardi zabaletan sakabanatutako beste hainbat borda jo ditu begiz, eta horietariko bati erreparatu dio bereziki, hortik gertu dagoen Julian artzainaren gaztandegiari. Haren sarreran Tomas behizainaren autoa dagoela konturatu eta pentsakor geratu da.

* * *

Behizainak Julianen eremuan sartu aurretik aparkatu du, ez baitu arazo gehiagorik nahi artzain zaharrarekin. Autotik jaitsi eta azken metroak oinez egin ditu, tentuz, batere zaratarik egin gabe. Belar-bola batzuen atzetik lepoa luzatu eta artzainaren laguntzaile berria

ikus du, afrikar handikotea. Ardi baten azpian dauka sartuta burua eta haren titiburuei tiraka nekez ateratzen duen esnea zurrupatzeko ahaleginetan ari da.

–Goxo dago, Toure? –bota du bat-batean, belar-bolen atzetik irtenda.

Afrikarra izutu eta tente ipini da, eta ardiak ihes egin dio, taldearen babesaren bila.

Behizaina disimulurik gabeko mespretxuaz begira hurreratu zaio. Altuera berdintsuan geratzen dira haien buruak.

–Gustura bizi zara jauregi honetan? –galdetu dio.

–Tira.

–Nik ere izan nuen aukera zu kontratatzeko, bazenekien?

–Ez.

–Hemen egoten zara gau eta egunez, ezta?

–Bai.

–Zenbat ordaintzen dizu agure ero horrek?

–Zerbait.

Tomasek goitik behera aztertu du Toureren itxura penagarria, eta afrikarrak nahiago izan du mendialdean pausatu soa, Orbe herria inguratzen duten pagadi oparoetan, bistaz baino ezagutzen ez duen bisitariak zer arraio nahi ote duen zalantzan. Aste batzuk daramatza nafar Pirinioetan galdutako eskualde horretan, ez da ametsetako bizimodua, herritarrek ere ez

diote estimu handirik erakusten, baina urrun dago, behintzat, itogarria bilakatzen ari zitzaion hiritik, Bilbotik.

–Beharbada –jarraitu du behizainak, jarrera pixka bat amultsuagoaz–, interesatzen zaizu sos batzuk eskuratzea eta proposamen bat eginen dizut.

–Bota. –Sinesgogortasun kutsua dauka Toureren ahotsak.

–Ziurrenik badakizu nire astoa hil dutela bart. –Afrikarrak baiezko keinua egin du–. Burua moztu eta eraman egin dute, eta erruduna nor den jakin nahi dut, kosta ahala kosta. Zeuk aurkitzen baduzu, euro batzuk eskuratuko dituzu.

–Zenbat euro?

–Julian xuhurrak lanegun bakoitzeko ordaintzen dizuna baino gehiago, hori ziur.

Ardien beak baino ez dira aditu hurrengo segundotan.

–Zergatik ez duzu poliziagana jotzen?

–Oraindik ez zara ohartu zein ongi konpontzen garen hemen poliziarekin?

Tourek bazeukan halako susmoa eta, ondo pentsatuta, hobe da horrela denentzat. Izan ere, poliziari deituko baliote, galderak egitera etorriko lirateke Orbera, agian berari itaunka ere hasiko lirateke, agian eskuratu gabe jarraitzen duen paperak eskatu, bere

aurrekariak ikertu... Bilboko San Frantziskotik ihes egiteko arrazoi nagusia ertzainengandik aldentzea izan zen eta, nahiz eta Nafarroan ertzainik egon ez, edonolako poliziengandik zenbat eta urrunago egon, hobe.

–Zergatik pentsatu duzu nigan?

–Herriko aguazilak lotsa zer den ez dakielako.

–Nazka keinua atera zaio behizainari, eta Toureri morroi horrekiko antzeko sentiera daukala otu zaio-. Kabroi hori sobera lanpeturik dago putetxera bisitak egingiten edo etxean potrojorran egoten, eta ez du nire astoaren aferaz deus jakin nahi.

–Eta ez dago herrian beste inor ni baino aproposagoa zeregin horretarako?

–Zu ez zara, ba, detektibea edo horrelako zerbait?

–Norik esan dizu hori?

–Honaino ailegatu da zure ospea, pentsa.

“Adama? –pentsatu du Tourek, behizainaren trufa-keinuari muzin eginda-. Zer kontatu ote du hemenngo bazterretan nire lagun senegaldarrak?”.

II



Adamarengatik etorri nintzen Nafarroako herri txiki honetara. Aspaldiko ezagunak gara, bidaideak izan bainen Mediterraneoeko itsas tarteko patera zoritxarreko hartan. Hogeita hamaika lagun gindoazen sasi zodiak haren barruan gau hartan, denak afrikar beltzak. Itsaso txarra egon arren, dena ondo zihoala zirudien, Espainiako kostako argiak oso hurbil ikusten genituen jada, baina jendea helmugaren gertutasunagatik urduri ipini, zutitzen hasi eta olatu kolpe baten eraginez patera irauli egin zen. Emaitza itzela izan zen: denak ito ziren Adama eta ni izan ezik. Patuaren apetaz gu biok kaskoaren azpian geratu ginen, hor sortu zen aire-burbuilari esker arnasa hartu ahal izan genuen eta, batek daki zenbat denbora igaro ondoren, erreskatatu egin gintuzten.

Ez naiz ia batere gogoratzen erreskateko xehetasunez. Gogoan daukadan bakarra da Gurutze Gorriak arropa berriak eman zizkigula, poliziari, erbesteratzea saihesteko, Sierra Leonako errefuxiatuak ginela esan geniola, eta Espainian egoteko eman ziguten hilabete baimena ondo aprobetxatu genuela handik bizkor desagertzeko.

Nork bere bidea jarraitu zuen, nik Bilboko San Frantzisko auzoan amaitu nuen eta Adamak Nafarroako Pirinio inguru honetan. Elkarren berri izan arren, ia ez dugu hitz egin azken urteotan, bioi gomuta mingotsak ekartzen baitzizkigun paterako esperientzia oroitzeak. Orain, ordea, halabeharrak, edo, hobeto esanda, nire laguntza eskariak, berriz elkartu gaitu paraje honetan.

Izan ere, San Frantziskon jarraitzea jasanezina bilakatzen ari zitzaidan, poliziak erabat menperaturik baininduen, haien txotxongiloa bainintzen, haien txibatoa, haien sikarioa... Guztiz itogarria suertatzen zitzaidan xantaia hura eta ihes egitea erabaki nuen, agur esanda tarte baterako Afrika Txiki hartako lagun onei, Osman pisukide maliarrari, Xihab kolega bereberriari, Kristina maitale zuriari... Badaezpada, larrialdirik ezean kontaktua guztiz etetea erabaki genuen, noiz edo noiz berriz elkartzeko garai hobea etorriko zelakoan. Telefonoa itzali eta guzti egin nuen, itzali eta bateria

kendu, eta horrela gordetzen dut, bestela edonon lokalizatu ahal zaituztela esaten baitute. Ez dut uste ni ertzain haientzat bila etortzeko bezain inportantea naizenik, baina, badaezpada, guztiz deskonektaturik bizitzea hobetsi dut.

Burkina Fasoko nire familiarekin ere etenda daukat komunikazioa, baina bestelako arrazoiengatik. Emazteak zera esaten izan dit, hainbeste urteren ondoren ez banaiz gauza izan paperak lortu eta haiek Europara ekartzeko ez naizela benetako gizona, gure umeei jaten emateko adina diru bidaltzeko gai ere ez banaiz lotsatu egiten dela nitaz. Berba mingarriak bota dizkit aspaldi honetan eta azken aldiz hitz egin genuenean pikutara bidali ninduen zuzen eta artez.

Merezita daukat mespretxu hori, bizirik irauteaz aparte ezer gutxi lortu baitut etorkinon ustezko paradisuan eman ditudan urteotan, baina esperantzari pazientzia afrikarraz eustea beste irtenbiderik ez dago. Egoera berrietara moldatzen jarraitzen dut, ezinbestean, eta orain herri galdu honetan egotea suertatu zait. Artzain-borda baten inguruan pasatzen dut egun guztia, ardiak gobernatzen, sasoiaren arabera ilea kentzen, arkumeak babesten, belarra mozten edo garraiitzen, instalazioak garbitzen... ia musu-truk. Artzain zaharrak noizean behin billeteren bat luzatzen dit eta pozik egon beharko nukeela dio, lo egiteko

lekua, behintzat, badaukadala, bera gaztetan hainbat gau emana dela mendialdeko txaboletan hotzak hilik, jatekoa irabazteko ere larri ibiltzen zela. Lantzean behin gaztanbera apur bat ematen dit, edo gazta zatiren bat, edo ogi puskaren bat, baina txarrena haren jarrera da, bakarrik falta zaio lurrera botatzea nik hortik jasotzeko, bere txakurrekin egiten duen bezala. Azken baten, horrelaxe sentitzen naiz ni, artzain-txakurra banintz bezala, edo okerrago, haiei, behintzat, laztanak eta hitz goxoak eskaintzen baitizkie noizean behin.

Adamak besterik ezin zidala lortu abisatu zidan, eta, egia esateko, haren egoera ez da askoz hobea, berak ere egun osoa pasatzen baitu gasolindegiko baten sartuta, errepide nagusiko bidegurutze bakartian. Goizeko lehenengo orduan irekitzen du, itxi arte hor egoten da, eta gaua bertako biltegian ematen du. Berak, behintzat, laurehun euro eskuratzen ditu hilero. Edozein langile zurik aurpegira botako lioke kopuru hori gasolindegiko jabeari, baina gure gisako afrikar gosekilentzat bada zerbait, eta Adama, alokairurik ordaindu behar ez duenez, bezero batzuen eskupekoak ere aprobetxatuz moldatzen da, bizirik irauteaz gain, hilero zerbait bidaltzeko familiari. Eta, garrantzitsuena, paperak aspaldi eskuratu zituen eta ni baino lasaiago bizi daiteke.

Ailegatzen ari naiz gasolindegira, hor ikusten dut senegaldar txikia, gerizpean kokatutako aulkian jesarrita,

besoak gurutzaturik, hodeiertzera begira, gogoa batek daki non. Bordatik hartu dudan bizikleta karrankarian ailegatzen ikusi nauenean alaitu egin zaio begitartea, bere gorputz mehea zutitu eta bostekoa eskaini dit, irribarrea ahoan.

* * *

–Kafea bai, ezta? –galdetu dit Adamak, jakineko agur afrikar luzeen ondoren.

–Bai, mesedez.

–Beti bezalakoa?

–Bai.

Adamak sukaldetxo bat dauka gasolindegiko biltegian, eta hortxe prestatzen ditu eguneroko jatorduak, bezero jator batzuek hiri gertueneko supermerkatutik ekartzen dizkioten erosketak erabiliz. Nik, oster, oso noizean behin baino ez dut erosketaren bat egiten Orbeko janari-denda txikian, eta artzainarenean sua eginda eta han dauzkan lau ontzi ugertuekin moldatu behar dut zerbait beroa prestatzeko. Nire elikaduraren maila duintasunera ere ez da iristen: arroza izaten dut oinarri, eta inguruko erreka, larre eta basoetatik eskuratzen ditudan gauzak izaten dira horren osagarria. Nire jaioterri agorrean, Burkina Fasoko iparraldean kokaturiko Gorom-Goromen,

harea arteko eskorpioiak janez elikatu beharko nuke. Hemengo lurralde emankorrean, sikeran, perretxi-koak, barraskiloak, arrainak, masustak edo bestelako fruituak lor ditzaket. Eta sasoiaren arabera topatzen diren edo ez diren jaki horiez gain, Adamaren elkartasuna ere jasotzen dut garai oro.

Berehala itzuli da senegaldar txikia sukaldetik, azpil baten bi katilu kafesne eta ogi zati batzuk gurinez igurtzita dakartzala.

–Burua galdutako astoaren berri izan duzu? –galdetu diot lehenengo zurrutada goxoaren ondoren.

–Jakina, gaur bezeroekin eduki dudan mintzagai nagusia izan da.

–Ezetz asmatu nori agindu dioten erruduna topatzeko ikerketa. –Adamaren irriak argi adierazi du asmatu duela erantzuna–. Behizainak berak egin dit proposamena, zuk esan diozu detektibea edo horrelako zerbait naizela?

–Bueno... –Solaskidearen ahotsak zalantzatsu jo du–. Agian berari zuzenean ez, baina zuretzako lan bila nenbilenean, ikerketa-zereginetan ere trebea zarela zabaldu nuen Orben, lagungarria izango zitzaizulakoan, noski.

Baserriko ogi goxoa bere puntuan txigortu du senegaldarrak, gutizia dira niretzat prestatzen dizkidan tostadak.

–Ez dakit, ba –jarraitu dut–, gauza handirik aterako ote dudan ikerketatik. Diru pixka bat agindu dit, baina zenbat zehaztu gabe.

–Orduan hobe duzu ilusiorik ez egitea. Herri hau zekenez beterik dago, baina denetarik handiena Tomas bera da.

Adamaren hitzek nire susmoa baieztatu baizik ez dute egin. Orbeko jende gehiena diruz ustelduta dago, abereak direla, lur-sailak direla, bertoko produktuen salmenta dela, landetxeak direla..., baina burkinafasoar txiroenen gisan bizi dira, badirudi hilobirako nahi dituztela euren aurrezkiak.

–Bide batez –erantsi du senegaldarrak–, behizainaren borda ez dago zuretik urrunegi eta bart ez duzu ezer arrarorik ikusi edo entzun?

–Ikusi, ezer ez; entzun, bai: gaueko ordu txikietan motor baten hotsak iratzarri ninduen, zerbait moztan ari zirela zirudien. Segundo batzuetan irauin zuen, eta handik minutu gutxira, auto bat pasatu zen gertu, oso bizkor eta musika ozen jarrita.

–Lehenengo hotsa motozerra batena izan zitekeen, ezta? Horrelako batekin ebaki omen diote burua astoari.

–Beharbada bai, baina inguru honetan nork ez dauka halako tresnarik?

–Eta musika, zer motatakoa zen?

–Ez dakit zelan esan, erritmo bizi-bizia zeukan, zaratatsua zela esango nuke, hamar minutuz entzuten egonez gero buruko minez amaitzen duzun horietakoa.

–Eta autoaren hotsa zelakoa zen? Gasoliozkoa, gasolinazkoa...

–Zeuk ematen duzu ikertzailea –esan diot, irribarerea ekidin ezinik–. Oso motibaturik ikusten zaitut eta, gura izanez gero, laguntzailatzat hartuko zaitut eta irabaziak erdi bana egingo ditugu.

–Zero euroren erdia niretzat, ez da tratu txarra. Dena dela, esan, zer auto mota izan zitekeen zure ustez?

–Ez daukat belarria zuk bezain landuta horrelako kontuetan, baina oso berria ez zela esango nuke, ziu-renik gasoliozko traste bat izango zen.

–4x4 bat edo?

–Beharbada... Baina horrelako bat ere, nork ez dauka hemen?

Gasolindegira ailegatu naizeneko jarrera bertsuan geratu da Adama, hodeiertzera so, gogoak batek daki non.

–Laguntzeko gogorik badaukazu –esan diot–, hemendik ia orbitar guztiak pasatzen dira eta, belarriak erne izanez gero, batek daki, agian lagungarria izan daitekeen informazioen bat lortu dezakezu.

–Jakina, saiatuko naiz zeozertaz enteratzen, niretzat edozein berritasun da kilikagarria bizimodu aspergarri honetan.

Zerutik hegaz igaro den arrano bikotean ezarri dugu arreta. Ohikoak dira horrelako hegazti harrapariak paraje honetan, euren hegaldi dotore eta lasaigarriarekin, hainbat ordu ematen ditut haiei begira, gogo baretzen laguntzen didate, baina oraingo honetan Adamak atoa desegin dit bake sentiera:

–Ni dagokidan lantokian nago, baina zuk ez zenuke zeurera itzuli behar? Artzaina enteratzen bada hemen galtzen duzula denbora berriketan, soldatetik deskontatuko dizu.

–Popatik! –atera zait–. Merezi dut atsedenaldia lantzean behin, ez duzu uste?

Senegaldarrak adostasun keinua egin eta bidegurutze bakartiko isiltasunean murgildu gara berriro. Hurrengo minutuetan aditu diren hots bakarrak nireak izan dira, plazerezko hotsak: kafesne oso azukretuari emandako zurrupadenak, azken tostada txigortuari egindako haginkadenak... Gutizia, benetako gutizia.

* * *

Berandu egin zait eta ez da gehiegi falta iluntzerako, borda aldera iritsi naizenean. Artzaina gaztak egiteko

eta esnea jezteko txabolaren barruan dago, makina mar-txan daukala, tutuak txandaka lotzen eta askatzen dizkiela ardien titiburuei. Txabola hori da niretzako toki debekatu bakarra gaztandegiaren eremu zabalean, agurari laguntzeko ez bada. Horko giltza ez lidake inola ere utziko, susmatzen baitu, hala eginez gero, biltegiko esne erdia edan, gazta erdiak jan edo ahal dudan guztia ostuko niokeela. Eta bere susmoa zentzuzkoa da.

Jezteko makinaren hotsak estali ditu nire bizikleta zaharraren kexuak eta, txabolaren ondotik isilik igarota, eremuko eraikin handienera joan naiz, ardiei jaten emateko estalpera. Udaberri amaiera honetan ardi gehienak zelaietan egoten dira belar freskoa jaten, eta hemen barruan ama berri berantiarrak baino ez daude, euren umeekin. Bizikleta lurrean utzi eta arkumeei begira geratu naiz. Badirudi ezagutzen nautela, pozten direla ikusten nauten bakoitzean. Maitagarriak dira, bai, baina orain nagoen egoeran gusturago ikusiko nituzke labean erretzen hemen balaka baino. Ia izenez ezagutzen ditut, hor daude *Elur* zuri-zuria, *Buruhandi* amak arbuatua, *Belzkote* umore petralekoa... Baina... ostia, bat falta dela iruditu zait. Bat, bi, hiru, lau... Bai, bat falta da, ziur nago, eta hutsuneaz jabetzeak bat-bateko larritasuna sentiarazi dit. Zer gertatu ote da? Ar-tzainak hartu ote du etxerako edo saltzeko? Hauen gehienen patua horixe da, heriotza goiztiarra norbaiten

sabela goxatzeko, baina gaurko honetan falta denak bide hori hartu du ala ostu egin digute? Ala hil egin da? Teilatupe zabala miatu dut punta batetik bestera, ez dago arkumearen aztarnarik, zer arraio gertatu ote da?

Azienda-lapurrak ez dira batere ezohikoak hemen. Boladaka jarduten dute, 4x4etan edo kamioi txikietan igarotzen dira gure pistetatik eta abereak, ondo zainduta egon ezik, segundo baten autoan sartu eta eramantzen dituzte. Artzainak esan dit ni etorri baino lehentxeago zazpi ardi izorra ostu zizkiotela arratsalde baten. Horrelako lapur bat izan ote da erruduna? Zer egin dezaket? Edozer emango nuke arkumearen bee makala berriz entzuteagatik, baina horren orde, bee guztiak estali dituen orroa aditu dut:

–Toure, hor zaude!?

Zer egin behar dut? Konturatu ote da artzaina desagerpenaz? Badirudi honantz datorrela, ez dadila honaino heldu, onena bidera irtetea da.

–Hementxe nago, noski –esan diot, bide erdian planto, aurpegira begiratzen ausartzen ez naizela.

–“Noski”? Non arraio egon zara arratsaldean? Aspaldi etorri naiz bordara eta ez zeunden inguruan.

–Herrira joan behar izan dut mandatu bat egitera.

–Beti aitzakiaren bat. Egun osoan nahi zaitut hemen, horixe izan zen tratua eta ez zaitut harrapatu nahi berriz hortik zehar potrojorran.